

Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko abenduaren 16a / IV. urtea / 157. zenbakia



XOUSE SIMAL

Joan den larunbatean amaitu zen Durangoako Liburu eta Diskoen Azokaren data biribil gorritz inguratua izan ohi da urtetik urtera alor honetan jorran ari diren euskal etxeendako. Nafarroatik zortzi joan dira aurtan, eta bertatik atera dutenaren balantzea ez da txarra, inolaz ere ez: salmentak onak izan dira, oro har,

Durango nafarrek ikusita

batez ere handien artean, eta baten batek hirukoiztu egin ditu iazko zenbakiak. Tokiak eta ordutegiak, hala ere, denen kritikak eragin dituzte, eta batzuek «seriotasun falta» ere aipatzen dute. Nolanahi ere, heldu den urtean bertan izango dira denak, Durango Durango baita. Oso garrantzitsua alegia.

Nahi ez bezalakoak

Nik, 'garakea'!». Duda izpirik ote duen, hala errepikatu dio seme ttikiak aitari izen ahoskaezinezko denda haundian sartu direlarik. Bi tanta gehiago, biak, Eguberriko sukar kontsumistak hartaratuak, trantsito haundi-zabaletan metaturiko bertze milaka guraso eta seme-alabean. Haien inguruan, jostailuak imajina ahala, mota, kolore eta tamaina guztietakoak, milioi bat umeren amets eta ameskaiztoak betetzeko adina. Haurren zoradura eta aita-amen zorabioa. Gure bikotea, alabaina, ikusle huts baizik ez da oraingo etorri. Erosketa geroagoko afera izanen da, adin ttikiko lekukorik gabea.

Baliteke gizona familiako bertze batzuekin noraezean ibiltzea hura ala

bertzea erosi. Seme ttikiarekin ez. Harek garajea nahi du. 'Garakea'. Hala jakinarazi zuen Erregetako kontuaz aritu ziren lehenbiziko egunean eta bere horretan dago. Aita moderno, inon bada-eta, bizitzan diren aukeren aniztasuna esplikatzera saiatu zaion guztietan erantzun bera bildu du gizonak: «nik, 'garakea'!».

Gaur ere horretan ari da, jostailuen munduaren zabala ulertarazi nahirik. Sailez sail egin dute ibilbidea. Panpinak eta puzzleak; mila klasetako jokoak, adimenaren pizgarri edo motelgarri; autoak eta motoak, motordunak eta gabeak; garai guztietako soldaduak, marinelak eta baserritarak; gazteluak, itsasontziak, zirkoak eta landetxeak; burdinbideak

Amen eta omen

AINGERU EPALTZA



eta kotxe zirkuitoak; kiroletan aritzeko tramankuluak... Orori behatzen dio gure ttikiak, oro ukitzen eta eskukatzen. Gogoko ote duen galdetzen zaiolarik, ordea, ihardespina ez da luzatzen: «nik, 'garakea'!».

Hondarrean, aitak nahi zuen lekura ailegatu dira. Begiak ñir-ñirka ditu gizonak. Polizia amerikarrak erabiltzen duen zizparen jostailuzko kopia ikusi du lehenik, harat-hunateko mugimendu batez kainoi azpiari eraginda bala erabiliez libratzen dena. «Horrelako batekin 'Harry zikinak' ukamil baten pareko zuloak egiten zizkien bere etsaiei», esplikatu dio ttikiari. Goitixeago, AK-47 baten plastikozko errepika dago, teknika sobietar garatua hirugarren mundu

ko gerra guztien fabore. Parada ederra telebistak Jugoslaviatik edo Txetxeniatik ekartzen dituen irudiak orotarazteko. Alde batean dagoen UZI metrailetak (egiazkoen itxura eta pisu berberetako) hipzide emanda, Israelgo armadako komandoek palestinarren kontra burututako 'kolpe' ugariez mintzatu zaio azkenik gizona. Erakustaldia bukatzean, umearengana bihurtu da, itxaropentsu. Ihardespina, eskue-tan izan dituen tramankuluak jaurtiriko bala temoosoa: «nik, 'garakea'!».

Orduan oroitu baita gure aita moderno, guraso ororen nahikeria seme-alabak beren idurira araberatzea den bezala, haurren egiteko nagusia gurasoak zapuztea dela.

GURE AUKERAK

ANTZERKIA

'Bazter utzitako panpinaren istorioa' izeneko antzerki lana taularatuko du bihar, abenduak 17, Iruña Pequeño Teatro taldeak Garesen. Euskara Zerbitzuak antolatutako Euskararen Asteko ekitaldien barruan, arratsaldeko 7.00etan hasiko da, Zamariain pilotalekuan.

'Munduko malabaristenak' antzezlanaz plazaratuko du heldu den asteazkenean, abenduak 21, Zirko Ttipia taldeak Tafallan. Herriko Kultur Patronatoak haurrentzako euskaraz antolatu dituen ekitaldien barruan, arratsaldeko 6.00etan hasiko da, Kultur Etxean.

Bederen Bat antzerki taldeak 'Errenta' izeneko lana taularatuko du gaur ostirala, abenduak 16, Leitzan. Herriko Kultur taldeak antolaturik, arratsaldeko 8.00etan hasiko da, Leitzako zinemaren.

BESTELAKOAK

EGUNKARIAren jaialdirako sarrerak salgai daude jadanik ohizko puntuetan. Jakina denez, Jaia abenduaren 17an ospatuko da, Anoetako belodromoan. Helduentzako sarrerak 1.000 pezetan eros daitezke aurretik hartuta eta 300 pezetan umeenak; takillan 1.200 pezetan. Toki hauetan daude salgai: Iruñeko Kattu, Txorimalo eta Basajaun tabernetan eta Xalbador liburutegian; Atarrabiako Ostatu tabernan; Barañaingo Refugio Tabernan; Burlatako Zumai tabernan; Lizarrako Katxetas tabernan; Berako Errekalde ostatuan; Tafallako Azoka tabernan; Altsasuko Biltoki tabernan; Leitzako Txoko tabernan; Etxarri-Aranazko Xapatero tabernan eta Kaxeta liburudendan; Lesakako Matxinbeltzenea euskaltegian eta Elizondoko Intza tabernan.

'Euskararen normalizarioaren' aurrera begira. Lehenbiziko urratsak gaiari buruz mintzatuko da Xamar idazlea heldu den asteartean, abenduak 20, Txantreako Axular Ikastolan. Txantreako Euskara Taldeak antolaturik, arratsaldeko 7.30etan hasiko da.

Jabier Muguruza eta Jean Louis Hargous musikariaren emanaldia izango da Zubietako ostatuan gaur, ostirala, arratsaldeko 8etatik aurrera. IKAk antolatutako emanaldi honetan Muguruza gaur egungo euskal musikaren egoera eta berak dituen goiti-behitiak aztertu eta eztabaidagai izanen ditu, eta Hargous Iparaldeko musikariak tarteka musika paratuko dio gaiari.

NAFAR KRONIKA

GAIZKA ARANGUREN

Itoitz, Danone, Euskalerrria Irratia... galtzailea zara Mikel

Galtzailearen sindromeak jota zaude. Arrazoiak ukan, badituzu. Euskaltzale gehienak bezala Irati bizi eta bizkorren alde, Danone enpresa Ultzaman gelditzearen alde

tan behera utz dezaketelako, zorritzarez.

Duela hiru urte Parisen ezagutu zenuen Bretaniar hark arrazoi osoz erraiten zizun: «Zuek, euskaldunak, gainbizipena hon-

na, baina, azken finean, gorrotoak eragindako hitzak zirela argitu zuenean ulergarria iruditu zitzaizun: «Horiek —auzitegi gorenkoak— afusilatzen dituzte bo- luntarioak eskatuko diren egu-



eta Euskalerrria Irratiaren legalizazioaren aldekoa zara. Eta ukan dituzun berriak zure nahien aurkakoak izan dira. Galtzaile zara. Baina, zer arraio!, zure eguneroko bizipenekin bat egiten duten berriak dira horiek.

Sortu zinen lur eta gizartearen egitatearen jabe izan zinenetik bi aldiz soilik dastatu duzu garaiaren gustu gozoa. Gogoan al dituzu? OTANi buruzko erreferenduma eta Iruñeko Gaztetxea. Behin behineko garaipenak beti. Lehena eraginkorra ez zelako eta bigarrena edozein egunetan ber-

damendietan oinarritu duzuen Europako herri bakarra zarete». Benito Lertxundik berak ere, aldiro dakarkizu gogora 778ko Orreagako gatazka irabazi azkena izan zela.

Izenburutan aipatu dizkizudan hiru aferen horien definizioak argi dira zuretako: Ekogenozidiodia, Ibargenozidiodia eta Hizkuntza-geozidiodia. Horretan bat dator zurekin egun Nafarroako kultur munduan puntakoenetako den idazlea. Gogorregia iruditu zitzaizun hark Durangon joan den asteburuan erran zizu-

nean, ni lehena izanen naiz. Bertintzanako Txatoren modura».

Euskalerrria Irratiak ezarritako errekurtsioari Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenak emandako erantzunak gorroto bizia piztu du zure burutxo erdi-zurituan. Era horretako epaiei bonbaz eta pistolaz erantzutea zilegi dela uste duzu. Azken finean, diozu, zein da bietarik ekintza biolentoena? Gizakiari bizitza zor zaio. Eta hizkuntzari?

Argi dago motel! Hizkuntzaren tamainuaren arabera.

Galtzailea zara... Masokista!

ASTEKO PERTSONAIK



Jacek Ziober
Futbolaria

Datozen hiru partiduetarako zigortu du Federazioko Komiteak Jacek Ziober Osasunako jokalaria poloniarra, igandean, Eibarren kontrako partiduan epaileak kanpora bota baitzuen. Berarekin batera Ibañez eta Staniek poloniarra ere zigortuta daude, hauek partido banarekin. Hori bakarrik falta zitzaion Osasunari, lehendik arazo nahikoak ez dituela eta, orain hiru jokalaria titular zigortuta dauzka. Talde naparrak iragarri du Zioberren kontrako zigorra errekurrituko dutela «bidegabeke-ria» dela esanez. Epaileak bere aktan azaldu zuen Zioberrek «kabroi» esan ziola, behin baino gehiagotan gainera, eta horregatik bota dizkiote hiru partidu. Hala ere ez dute Sadar futbolzelaia itxiko eta isuna ere baxua da.



Mikel Bujanda
Kazetaria

Iruñeko Komunikabideak S.A. enpresak, Euskalerrria Irratiaren jaik hain zuzen, kasazio-errekurtsioa jarri du Madrilgo Auzitegi Gorenean Nafarroako Auzitegiaren epaiaren kontra. Lizentzien banaketaren aurka errekurtsioa jarri zuten orain dela lau urte eta orain atera berri da epaia, beraien kontrako, eta «iraingarria» gainera, Mikel Bujanda Irratiko zuzendariaren hitzetan. Euskarazko irratsaioak erdaldunak baztertzeko dituela zioen epaia, Iruñerrian gehiengoa erdaldunak izanda (gainera eremu honetan «jatorriz» euskaldunak ez dagoela dio epaia). Euskara hutsezko irratiak baztertzeko duela. «Euskaldunoi burla eta meprezu egiten digu epai honek», esan zuen, eta Nafarroako Gobernua epai honen inguruan bere jarrera ager dadin eskatu zuen.



EKITALDIK

Txanbela musika folk taldearen kontzertua izanen da bihar larunbata, abenduak 17, Etxalekun. IKA eta Euskara Zerbitzuak antolatuta, arratsaldeko 8.30etan hasiko da, pilotalekuan. Joan den urriaz geroztik Etxalekun bertan 'Kanta Zaharren' ikastaroa burutzen ari da, aipatutako taldeak antolaturik. Ikastaroa amaitzeaz dagoela eta, horrelako kontzertutxo bat prestatzea erabaki zuten, amaiera moduan. Ondoren, afaria izanen da herriko ostatuan. Bertara joan nahi duenak aurretik izena eman behar du ostatuan bertan edo 50 30 13 telefonora deituz. Jarraian giro bikaina izanen da, musika taldea ere hantze izanen baita soinu eta kantariak falta ez daitezten. Honetaz aparte, Basaburuko 'Irkaitez' gazte taldeak antolaturik, dantza ikastaroa hasiko da gutxi barru Basaburua eta Imotzen. Jauntsararen izanen da, arratsaldez eta larunbatero. Helburua oinarritzeko dantzak ikasten saiatzea da horregatik edonork partehar dezake. Irakasle lanetan Irurtzango 'Orritz' taldean ari diren hiru dantzari izango dira. Ikastaroa bizpahiru hilabetez luzatuko da.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketarako.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazkenean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Iruñea

Txantreako Eguna larunbatean

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Txantreako Eguna antolatu du asteburu honetarako Txantreako Jai Batzordeak, Iruñeko Udala-ren laguntzarekin. Krossa, haurrentzako jokoak, jaialdiak, musika eta bazkaria izango da, horrela, Iruñeko auzoan, dena alderdi honetako bizia suspertzeko asmoz.

Egun osoa ekitaldiz bete izango da, eta ez da inorentzako aukerarik faltako edozer gauzatan aritzeko. Goizeko 9.30etan dianak izango dira, eta ondoren, krossa, Irubidetik aterata. Bi lasterketa izango dira: 10.30etan haurren krossa, eta, ordubet beranduago helduena. 11etan, halaber, eta Euskararen Enparantzatik abiatuta, ibai bazterrean barnako natur ibilaldi bat prestatu dute antolatzaileek, hain ezezaguna den Arga ibaiaren egoera eta bitxitasunak ezagutzeko. 11.30etan haurrentzako jolasak izango dira, San Cristobal Gazte Taldearen laguntzarekin. Toki berean, 12.15etan, Axular Ikastolako dantza taldearen emanaldia ikusi ahal izango da, eta, ordu berean, Xake Erraldoia. 13.00etan Ten Pinpilinpaua taldearen antzezlan izango da, 'El principe feliz' lanarekin. Eguraldia txarra izanez



Krossak eta dantza jaialdiak zabalduko dute egitaraua.

gero, ekitaldi hauek M^a Ana Sanz pilotalekuan izango dira.


11etatik 14ak bitarte Armonia Txantreanaren lokaletan mendizaleen material erakusketa izango da, eta mendiko diapositiben emanaldia, Txantreako Mendi Taldeak antolatuta. Ordu berean, Euskararen Plazan, Guatemala eta IHESari buruzko erakusketak ikusi ahal izango dira eta zenbait materialen salmenta prestatuko da. 14etan bazkaria izango da Auzotegin, Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta, eta

17etan, Piramideen Plazan, Herri Kirolak. 18.30etan, Ama Salestarren Aretoan, irri egiteko arte jaialdia, eta 19etan euskaldunentzako poteoa, musika eta guzti. Txorimalo ostatutik aterako da. 20etatik 23ak bitarte, Auzotegin bertan, Rock Kontzertua izango da, Nahizer Bizkor, Eraietz eta Buitraker taldeekin. 20.30etan Santiagoko 25. urtemuga ospatzeko, eta Santiagoko elizan, Iruñeko Orfeoak ekitaldi bat emango du. 24etatik aurrera, Auzotegin, Gau Pasa.

Goizueta

Estitxu nagusi Xalto sarian

Estitxu Arozena lesakarra nagusi zen larunbatean ospatu zen II. Xalto Bertsolaritza Sarian, Zortziko Ttikia elkarteak antolatuta. Jende franko Goizuetako pilotalekuan, eta 15 bertsolari, Nafarroakoak eta Iparraldekoak. Nagusi atera ziren txapelketa honetan Bortzirietako bertsolariak, Estitxuren atzetik Amaia Telletxea, Xabier Silveira, Estitxu Fernandez eta Iñigo Olaetxea sailkatu baitziren, Aranoko Xabier Legarretarekin batera. Sei bertsolari hauek aritu ziren arratsaldeko saioan, baina sartzeko gertu aritu ziren Oskar Eztanda eta Nerea Bruno. Argazkian, Estitxu txapela eskuan.



MANU GOMEZ

Elizondo

Elkarrik antolatutako azken irratsaioa

ELIZONDO

'Bake topaketa partehartzaileak' izenburuarekin Xorroxin Irratian Elkarrik antolatu dituen irratsaioen azken emanaldia izanen da larunbat honetan, 'Elkarriketa ereduak' izenburuarekin. Hamabi t'erdietatik ordu bata t'erdietara izango da, Elizondoko Arizkunenean, eta zuzenean eskainiko du irratia, aurreko sei emanaldiekin egin duen bezala.

Urriaren hondarrean hasi ziren emanaldiak, 'Euskal gatazkaren zergatiak' izeneko irratsaioarekin, eta gero giza eskubideak —azaroak 5—, ETaren eta Estatuaren indarkeria —azaroak 12—, indarkeriaren biktimak eta euskal presoak —azaroak 19—, Nafarroa —azaroak 26—, eta euskara eta euskal kultura —abenduak 10— gaiak jorratu dira. Irratsaio bakoitzean inguruko lau-bost lagunek parte hartu dute, astero desberdinak, eta hasieran bertan sondeo batean bildutako Iritziak entzuteko parada izan ohi da. Partehartzaileak gonbidatuak izanik ere, edozeinek partu hartu dezake eztabaidan, bai Xorroxinera deituz, bai eta Arizkunetik zuzenean jarraituz ere.

Donibane Garazi

Bankako meategiei buruzko erakusketa

H. GOROSTIAGA / BAIGORRI

XVIII. mendean Baigorritik Urepelerako bidean dagoen Banka herriko eskualdea meategietan aberatsa zen. Adituek diotenez, meategiz eta burdintza gune industrial horretan, Frantziar lurralde osoko kobre edo urregorri burdinolarik garrantzitsuena kokaturik zegoen. Akaso, Baigorriko ibaia ibai gorri bilakatzen zuen elementu huraxek.

Egun, gutik oroit du Nafarroa Behereko eskualde horren aberastasuna. Baina Leize Mendi elkarteak eta Pierre Machoti esker, bertako historia gogoetan freskatzeko aukera paregabea dugu, erakusketa polita prestatu baitute. Lana, meategietako galerietan egindako argazki ikusgarriez osatu dute, baita garai hartako hainbat dokumentu eta paper zahar balioekin ere. Ohar gaitzkeenez, bildu dituzten orduko posta kartek ere, inguruneak kanpoaldean zuen oihartzuna azaltzen dute. Erakusketa, Baigorriko Jean Pujo eta CPIEn ezarri dute ikusgai.

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Bonobus gorria


Gauza jakina da. Nafarroan ez da pekatua, eta bai, aldiz, miraria. Gauzak horrela, ez da harritzekoa Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikerleek karrikatu berri duten datua, Foru Elkarteak mundu mundialeko jaiotze tasarik baxuena daukala, alegia. Ez dago erditzerik aurretik gestio fisiologiko zenbait egin gabe, eta gurean halako gestio gutxi egiten direnez gero, emakume nafar bakoitzak 1,21 haur besterik ez du erditzen (nola erditzen da 0,21 hori? Batek daki). Hori gutxi bailitzan, ikerle berberen arabera nafarren bizi iraupena mundu mundialeko altuena da. Gizonok batz best 76,5 urte izan arte bizi ei gara, eta emakumeak 81 urte eduki arte.

Gizarte nafarra, beraz, zahartzete bidean dago, eta abjadura bizi-bizian gainera. Aurki berrogei urteko lagun koadrilak elkartuko dira San Agustin kaleko gaztetxean, eta atarra-biatarretan, villabesetan alegia, jubilatuen bonobus gorria duten bidaiariak gehiengoa osatuko



dute. Nik neuk ere estankoan bonobus gorria eskatuko dut egun karteran daukadanari gertzen zaizkion lau bidaiak akitzen ditudalarik; izan ere, inoiz baino zaharkituagoa sentitzen naiz.

Gaztetasuna bihotzean ei datza, eta ez adinean, eta ni, zinez eta bihotzez, zaharra sentitzen naiz. Gaztea izatekotan Berriozarren izanen nintzen joan den larunbatean, Sociedad Alkoholika, Beltzez eta Su ta Garren kontzertuan izerdi patzetan dantzan, gainontzeko gazteekin batean. Ez nintzen jaitsi, eta ez daukat aitzaki berezirik, musika hori guztia ez zaidala gustatzen besterik ez, zarata hutsa iruditzen zaidala besterik ez, zahartzen ari naitzela besterik ez. Koadrilakoe-kin batera Alde Zaharrean gertatu nintzen, betiko tabernan betiko tabernariari betiko kantak eskatzen. Cicatriz, RIP, Eskorbuto, Zer bizio? Hertzainak, Delirium, Zarama... Hori bai musika!. Esan bezala, bonobus gorria erosiko dut aurki.



Nafarroako Taldekako Txapelketaren 7. ihardunaldiko partida, 1994ko azaroaren 26an jokatua.

Eduardo Ridruejo, 1.985 ELOkoa (Iruñeko Runa 'A')-Unai Garbisu, 2.310 ELOkoa (Iruñeko Orvina 'A').

1.e4,c5; 2.Zf3,Zc6; 3.Ab5,a6; 4.Ac6,d-c6; 5.Zc3. Peoia jaterik bazuten, baina beltzei erasoaren ekimena uztea zen. Arriskutsuegia. 5...f6; 6.d4,d4; 7.Zd4,c5; 8.dZ-e2, dd1 xa; 9.Zd1,Ae6; 10.Af4,0-0-0; 11.Ze3,Ze7; 12.Ag3,g6; 13.Zf4,Af6; 14.Gd1,Ag7; 15.fZ-d5. Endroka atzeratzea ez da ohi izan ona. Txuriek alai jokatu dute, beren ahuldadea non zen konturatu gabe. Ikus Koadroa. 15...Zd5; 16.Zd5,hG-e8; 17.Zc3,f5; 18.Gd8 xa,Ed8; 19.e5. Damaren aldea, apurtzea ekiditeko peoia eskaini dute. Galduta zegoen.

19...Ae5; 20.Ae5,Ge5 xa; 21.Ed2,b5; 22.Ge1,Ge1; 23.Ee1. Hobe al zen gazteluak kentzea? Peoiak aldatuz gero, alfila zaldia baino azkarragoa da. Blokeoa komeni zaio, ordea, zaldia-ri. Peoien trukea egiteko moduan dirudite beltzek. 23...ee7; 24.b3,Ed6; 25.Ed2,b5; 26.Ze2,c4; 27.Ee3,c5; 28.Zc1,Ee5; 29.Ed2,Ad5; 30.f3,f4; 31.Ed1,Ed4; 32.Ed2,c3 xa; 33.Ee1,c4; 34.Ef2,g5; 35.Ze2 xa, Ee5; 36.Zc1,a5; 37.Ee1,Ae6; 38.Ef2. Erregearen sarrera galarazteko. Baina beste zulo bat laga dute. 38...b3; 39.a-b3,Af5. Txuriek etsi zuten, beltzen teknika zehatzak gaintuta.

Azpiko larrean

Galdera: Gure etxearen azpiko larrean aparkaleku bat egin dute. Gauzez mugimendu handia dagoenez, Zinema Xpor2 deitzen diogu larre horri. Gure seme-alabak segituan ohartu dira hor izaten den aferaz. Martzelori bururatu egin zitzaion oihal zuri batez jantzi eta mamuarena egitea, haiek beldurtu nahian. Beste barride batek arraindegiko zaborrak ekartzen ditu, eta aparkalekuaren erdi-erdian uzten ditu, kiratsa jario bekio. Hala ere, Atseginkerien Irla-Aparkalekuak hor dirau. Zer egin ote?

Erantzuna: Nik istorioaren beste aldea kontatu behar dizut. Duela gutxi nire kontsultara etorri zen gizon

bat, ezinegon arraro batek jota. Desioa galdua zuela zioen. Nik psikoazterketa eta ipnosis prozedurak ibiliz, zera galdetu nion, ea zer zen Desioa haren ustez, eta hark erantzun zidan: —Peeping Tom—. Segituan ohartu nintzen hor zegoela ezinegonaren iturria. Eta segidako istorioa kontatu zidan, loak harturik egonda. 'Begi bakartiak, zelatan harrrapatu nuen haur txarrarenak. Faktultateko pinudi hartan. Duela hirurogeita hamar urte seguru aski. Bi bizkarreko animaliarena egindakoan. Areaz eta tuaz mundua itota oraindik. Erdi jantzita. Basapiztiak bezain zoriontsuak. Haren oroimena nire lehendabiziko amodio istoriotxoarekin loturik datorkit burura. Lehendabiziko amodiozko istoriotxo 'korresponditua'. Hartu eta eman. Askotan galdetzen diot nere buruari nola tratatzen duen Biziak



Seguru nago ez dela oso kaltegarria gaztaroa noiz behinka sikira gogoratzea.

haur txar hura, gauean beste gorputz baten arrimoan egonik, ea gutaz oroitzen den, eta gure musuen zelatan egoten den. Iraganetik datorkit, garrasi galdu bat bezala, haren begien irudi hori. Nere desioaren beraren irudia'. Bestalde, esan beharra dago gizon hark lauretan hamabortz urte zituela. Ez da berez harrizkoa Desio-nibelak behe-rantz jotzea. Zuen aparkalekuarena ez dakit nola konpondu. Hala ere seguru nago ez dela oso kaltegarria gaztaroa noiz behinka sikiera gogoratzea.

Galdera: Zenbat mediku bisitatu behar ditugu eri gauden bakoitzean?


Erantzuna: Nik beste mediku baten hitzekin erantzungo dizut, Jean Etchepareren hitzekin. «Mediku bat mintzatzen delarik, harekin egoitea behar den epea, hura da zuhurtzia. Badira gaitz zorbait, ezagutzeko nekeak. Onik ez bada batere, joan

bertze mediku baten ganat, huni erranez zer zion eta nola den jokatu lehena. Urrats alfer gutiago erabiliko du horrela bigarrenak. Ez badu hunek ere gaitza kentzen, jo nahi bada hirugarren baten ganat, erranez huni ere nola arizan idren aitzineko biak. Ikus holaxe lauzpabortz mediku. Orogen artean ez bazituzte ontsa ezarri, geldi hartan. Ez etsi halere. Nun nahi ikusten dira gizon eta emakume batzu, beti erixka, begitartea hits, dena zinkurina dabilzanan, dela burutik, dela giltxurrinetatik, dela gibel-erraietarik, dela bihotzetik, eta batzuetan eskualde guzietarik gizon eta emazte batzu lauetan-hogoi urtetarat helzten direnak bizkitartean, beren adineko herritar gehienak hil-herrirat aitzinean eramanik».

Ikaskizuna bistan da, Zenbat gaitz ez ote dute osasuntsu asko eta asko konposantura eraman bizkarka eta han ehortzi?.

Apiterapia

Zer da apiterapia? Apiterapia sendatzeko metodo arraro bat da. Horren bitartez lumbalgiek edo reumek eta beste gaixotasun askok instantean galtzen dute bere efektibitatea. Apiterapian erle biziak erabiltzen dira sendagai bezala bakunen edo xiringaden ordez. Apiterapian erle bizi bat jarri behar dizute sendatu nahi duzun gaitzaren nerbioan eta zitzatzen zaituenen



edo fobiarik eduki behar, hori arrisku-tua izan baitaiteke.

Erleei alergia edukitzea oso arrisku-tua izan daiteke baina zorionez oraindik ez dira kasu larri asko gertatu. Alergia edukitzen badiezu eta zure alergia handia bada hiltzeraino izan daiteke haren efektoa. Pozoinak eragin erradio bat dauka eta horregatik aukeratzan den lekuan baino ez du eraginik.

Apiterapia gudan asko erabiltzen zen zeren han ez bait zegoen sendagirik eta



bere efektoa oso azkarra da.

Teknika hau oso zaharra da Errusian, baina orain arte ez zaio teknika honi inportantziarik eman, eta horregatik ez dugu oraindik ezagutzen. Errusian II. gerrate mundialean asko erabiltzen zen sendagairik ez zegoelako, eta erleak oso ongi mantentzen ziren, eta kopuru handiak lor zitezkeen ia sosik gastatu gabe.

Tratamendu bakoitzerako erle bat gastatzen da gutxi gora-behera, eta horregatik oso merkea ateratzen da, baina gaixoei burnizko nerbioak eduki behar dituzte eta ez diete intsektuei alergiarik

horregatik askotan nahi ta nahi ez erabili behar zuten.

Sendatzeko metodo honek gutxi gora-behera 50 urte dauka eta bere arrakastaren kopurua oso handia izan da.

Apiterapia akupunturaren antzekoa da baina orratza erabili ordez erle bizi bat erabiltzen da. Uste denez, intsektuaren gorotza izan daiteke alergiaren eragile haindiena edo bakarra.

Baina metodo hau beste modu batez erabili daiteke. Frantziar doktore batek bere pazienteei erleen pozoia horratzen bitartez sartzen die. Orduan erleari pozoia ateratzen dio xiringa baten bidez.

Guaixe' Sakanako herri aldizkariaren lehendabiziko zenbakia kaleratuko da asteazkenean Zior-ditik Irurtzun bitarte. Hiru kazetaritza ikasleen eskutik, 32 orrialdetan zehar Sakana osatzen duten 14 herrietako berriak hilabetero eraman nahi dituzte etxe guztietara, euskaraz jakina, eta horretarako osatutako elkarte baten laguntza izango dute.

'Guaixe': Sakanako aldizkaria

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Taldea duela urtebete sortu ondoren, azkenean asteazkena izan da aukeratutako data. Atzerapenak franko izan dira, hasierako asmoa iraila aldera ateratzea baitzuten arduradunek, baina azkenean, eta agindu bezala, 1994an sortu da Sakana osorako lehendabiziko aldizkari orokorra. Nafarroan 'Ttipi-ttapa-k' markatutako bideari heldu dio 'Guaixe-k' ere: bertako eta bertatik emaniko intereseko informazioa euskaraz, herrietako korrespondentekin eta dohainik. Herri aldizkaria Sakanako herrien eta herritarren zerbitzurako.

Proiektuak ez ditu zailtasun eskasak izan. Sakanako Mankomunitatearen dirulaguntza aginduta —500.000 pezeta—, diru hori gabe atera da lehendabiziko alea, Urdaingo eta Olaztiko udalen borondateari esker, hain zuzen ere. Urdaingarrek lokala eta argia utzi diote aldizkariari, musutruk, eta Olaztiko Udalak ordenadoreak, urtarrilera arte, Mankomunitateari eskatutakoak gehiegi atzeratzen zirela ikusita. «Altsasuko Udalarekin arazoak zituztela ikusita» azaldu du Amaia Amilibia aldizkariaren kazetarietako batek, «eta itxaroteko esan ziguten behin eta berriro, baina ikusi genuen horrela ez genuela aterako. Olaztiko Udalak utzi dizkigu erosi berri dituzten ordenadoreak haiek behar dituzten artean. Gero ikusiko dugu».

Aldizkaria ateratzeko ideia ez da berria, baina hiru ikasle ausarten bultzada behar izan du aurrera egin ahal izateko. Sakanako Mankomunitatearen asmoa izan zen hasieran, eta horretarako proiektua idatzi zuen Euskara Zerbitzuak. Asmoa ez zen gauzatu, baina, Kazetaritzako hiru ikaslek proiektua berriro martxan paratzeko interesa erakutsi zuten arte. Altsasuko Aitziber Etxaiz eta Amaia Amilibia, eta Ziordiko Olatz Irizar buru-belarri hasi ziren aldizkaria bultzatzen, eta asmoa egia bihurtzeko herri elkarte osatu zen, Biarrik elkarte hain zuzen.

Laguntza handiena, ia beti bezala, jendearengandik heldu zaie, eta oztopo handienak, erakundeetatik. Zailenak ziruditen oztopoak —publizitatea, herrietako berriemaileak—, horrela, erraz gainditu dituzte, eta ia hitzartuta zeudenak —Mankomunitatearen dirulaguntza, kasu—, ez dira gauzatu oringoz. «Publizitatea espero baino gehiago bildu dugu» azaldu du Amilibiak, «baina hasierako alean dena errezagoa izaten da. Hemendik



Aitziber Etxaiz, Olatz Irizar eta Amaia Amilibia aldizkariako kazetariak.

Andari elkarrizketa

A. B. / IRUNEA

Ez da zorro hutsik helduko aldizkariaren lehendabiziko alea, zakua bete berri baizik. Amaia Amilibiak azaldu duenez, 'Ttipi-ttapa' aldizkariaren ereduari jarraitu nahi izan diote hasieratik, eta sailen banaketa eta tratamenduan antzekotasunak iger daitezke lehendabiziko kirikadan.

Estreina zerbaki honetan Sakanako hiru pertsonaia ezaguni eskatu zaie iritzia aldizkariari buruz, eta Jose Maria Satrustegi euskaltzainak, Santos Iragi Irurtzungo idazkariak eta Manuel Ijurrea Sakanako Mankomunitateko lehendakariak hartu dute

parte, aldizkariari buruz bere us-tea azalduz. Ondoren sukalde txokoa dago, hilabetero inguruko jatetxe baten errezeta azalduko duena, eta ondoan, Sakanako zortzi herritan egin den inkesta, honetan ere aldizkariari buruz iritziak bilduz. Zinema kritikak eta irakurleari zabaldutako tokiak ez dira faltako, eta elkarrizketa interesgarria ere bada- kar lehen zerbaki honek: Jose Ramon Anda Bakaikuko eskultoreari eginikoa, hain zuzen ere.

Herriz herriko berriek betetzen dute, nolana ere, toki gehiena —hamabi orrialde—, eta txoko guztietako gertakariak bilduak daude bertan. 'Hortaz

eta hartaz' sailean, Cederna-Garalur elkarteari buruzko erreportaia dakar aldizkariak, eta baita Mikel Nazabalek Aralarri buruz egindako bideoaren berria ere. 'Euskararen txokoa-n' Jose Mari Arakamak Sakanako euskararen gainean artikulua egin du, eta bada asmoa bertako hizkera eta euskarari txoko fin-koa egiteko. Halaber, erreportaia bitxia ere sartu dute, eta aitzinean suaren bidez mezuak bidaltzeko zegoen ohituraren berri ematen da atzeko orrialdeetan. Kirolari buruz edo haurren txokoa izeneko sailetan arlo honetako berriak landuko dituzte eta komikia sartuko dute hilabe-tero.

aurrera urte osorako kontratuak egin nahi ditugu, eta hor ikusiko da jendearen jarrera». Herrietako berriemaileengan ere jarrera ezin hobea antzeman dute, eta zer esanik ez kanpotik begiratzen dutenengan. «Jendeak gogo handiak ditu aldizkaria ikusteko, eta Sakana handia izanik bertako bizitza ezagutzeko parada ezin hobea izango dela diote batzuek, eta euskarari bultzada emango diola besteez».

Arazoak, hala ere, ia animoak bezain handiak dira. Banaketa oraindik ez dago erabat finkatuta —ez dago euskaldunen erabateko zerrenda Sakana osoan—, eta hasierako zenbaki hau banatzeko herrietako berriemaileez balia-

Sakana osorako izateaz gain, Lakuntzan eta Urdainen ere badago bertako aldizkaria eta Arruazun laster aterako dute.

tuko dira. Ale bakoitzean harpidetza egiteko txartela sartuko dute, eta bigarren zenbakirako zerrenda osatuagoa izango dela sinetsirik daude.

Halaber, euskara, oinarrietako bat ezezik, arazoa ere izango da, hasieran bederen. «Arbizu, Arruazu eta Urdaingo berriemaileak saiatu dira bertako hizkera isladatzen» dio Amilibiak, «eta horrek kezka pila eragin ditu transkribatzeko orduan. Horregatik, nahi dugu euskara batzorde bat osatu, irizpideak finkatzeko eta nola idatzi behar den jakiteko».

Bestalde, egoera bitxia sortu da alderdian, Sakana osorako aldizkaria izateaz gain bi herritan herri aldizkaria dutelako —Lakuntzan 'Aiaupenarik' eta Urdainen 'Izkon'— eta Arruazun ere luze gabe bertako euskara taldeak 'Txirimiskeeyek' aldizkaria karrikaratuko duelako. Ez dirudi oso logikoa horrelako ugalketak, eta Nafarroako Gobernuaren Hizkuntz Politikan ere azaldu dira horren aurka, aldizkari guztiek dirulaguntza jasotzen baitute. Oraingoz, hala ere, ez da gaia konpontzeko inolako harremanik izan aldizkariaren artean.

Azken orduko arazo informatikoak gora-behera, beraz, aste-buru honetan kaleratuko da 'Guaixe'. Herri aldizkariak beste hainbat tokitan izan duten zeregina betetzeko du helburu, eta horretarako ez du faltan izango, antza, bertako euskaldunen laguntza. Galdera da: nahikoa izango ote da hori?

«Jubilatuak lan handia egin ahal du»

A. BARANDIARAN
/ DONEZTEBE

Arkupeak elkarteak aurten go ekitaldien balantzea eta hurrengo urterako egitaraua aurkeztu zuen asteartean Donezteben egin zuen bilera orokorrean. Kultur-atsedeneko ekitaldi franko antolatzeaz gain —horien artean Iruñeko Planetarium eta katedralera bisita, gimnasia ikastaroak, mus txapelketak, hitzaldiak eta eskulan erakusketak—, Ezkila

tuen alde lan egin beharra?

FELIPE GANBOA.— Nik ikusten nuen jendea bizi guztia lanean, eta gerran, eta gero etxean zahartzen, ilusiorik gabe, zer etorriko zen esperoan. Arkupeak elkarteak jaio zen bi ilusioekin: bata jendea etxetik ateratzea, bizitasuna ematea, jendeari lagunduz, eta bertzea, zaharrendako egoitzak edo etxebizitzak egitea edo bultzatzea. Lehendabiziko partea oso ongi beterik dugu, eta bigarrenari dagokionez joan den

handiena.

EGUNKARIA.— 2.300 bazkide kopuru ederra da, baina zaila seguraski dena aurrera eramateko. Nola da zuen antolakuntza?

GANBOA.— Herri bakoitzean badugu delegatu bat, eta herri handiak baldin badira, hiru edo lau. Adibidez, Elizondon baditugu lau, Beran, hiru, eta Leitzaan ere hiru. Horiek dute bilera guztietan bozkatzeko eskubidea, eta herriko lan guztia egiten dute: bai bilerak,

artean, aldiz, gogo handia ikusten da.

GANBOA.— Aurten egin ditugu egun bateko 20 ekitaldi, eta batez beste 430 lagun izan dira horietan. Horrek erran nahi du bidaia bakoitzean zortzi autobus joan direla. Joan den urtean Argentinan, Tenerifen, Torremolinosen, Benidormen bi aldiz, Galizian, Costa Bravan... Gainera pasatzen garen tokietatik esaten digute oso jende ona dugula eta oso kontent gelditzen dira.

EGUNKARIA.— Batzuek esaten dute jubilatuak ez dutela ezertarako balio, eta etxean hobe. Zuk, 2.300 bazkide hauek ezagutzen dituzularik,

«Pasatzen garen tokietatik esaten digute oso jende ona dugula eta oso kontent gelditzen dira».

zer esango zenieke hori esaten dutenei?

GANBOA.— Jubilatuak pentsatu behar du, ene iduriz, jubilatzean ez dela dena bukatzen eta kitto. Lana utzi eta bertze gauzetan lan egiten ahal duela eta laguntza ematen ahal duela pentsatu behar du. Ni joaten naiz ostiraletan eritxera eta bisita egiten diet han eri daudenei, eta orain Gabonetan opari tikiak egiten dizkiet, jakin dezaten Arkupeak haietaz ere oroitzen dela. Jubilatuak lan handia egin ahal du, eta egiten ari da. Gure elkarte-ko ordezkariak lan handia egiten dute, eta Felipe Ganboa ordezkariarik gabe deus ez da.

EGUNKARIA.— Handia da berez elkarteak. Gehiago hazi daiteke oraindik?

GANBOA.— Ez da komeni. Ez daiteke handitu baina gure ilusioa litzateke Hondarribira eta Hendaiara ere zabaltzea, Bidasoa osoa hartzeko.

Felipe Ganboa

ARKUPEAK JUBILATUEN
ELKARTEKO
LEHENDAKARIA



SOSLATA

Aldakak hautsita

Bi milatik goiti bazkide duen elkarte batez pertsona baten lana dela esatea gehiegizkoa dateke, baina Felipe Ganboa izan da gaur egun talde ederra dena gorpuzten adore eta lan handiena jarri duena. Duela bederatzi urte, aldakak hautsi zituenean, eritasun luzea egokitu zitzaion, eta jasotako laguntza handiak besteengandik ere zerbait egin behar zuela sinestearazi zuen. Orduan hasi zen Doneztebeko Faustino Mantrolarekin harremanetan, eta bien artean tajutu zuten asmoa. Herri guztietan mugitu ondoren, sei lagun bildu zuten, indarra hartu eta hortik gaur egun 24 herritan duten taldea.



Felipe Ganboa, Alli lehendakariarekin.

TTIPI-TTAPA

Errepika izeneko lehiaketa eratu du, eta Xorroxin Irratian astero 'Arkupeko Leihatila' irratsaioa. Halaber, erlijioari lotuta ateraldi franko daude, eta herri guztietan ospatuko da urtean zehar jubilatuena besta.

Baztan-Bidasoa osoko erretiratuak biltzen dituen elkarte hau izugarri hazi da duela zortzi urte sortu zenetik, eta gaur egun buru-belarri ari da, daukan antolakuntza bikainari esker, ateraldiak prestatzen eta zaharrendako egoitzak aurrera ateratzen. 2.300 bazkide izanik, asteartean 900 bildu zituen Donezteben. Horren guztiaren atzetik Felipe Ganboak dago, sortu zenetik bera izan baita elkartearen arima.

EGUNKARIA.— Hasi zinetean sumatzen zenuten jubila-

hilaren 24an Berako zahar egoitzaren lehendabiziko harria jarri genuen. Malerrekan ere datorren urtean hasiko ditugu lanak. Donezteben badugu egoitza ederra, eta erosi dugu etxebizitza bat, edozein istripu izan ezker, jubilatuak izan dezaten etxebizitza beste toki bat bilatu arte.

EGUNKARIA.— Zugarramuditik Iruneraino eremua hartuta, distantzia handiak dira oso. Ez da oztopo gauzak antolatzeko eta jendea etxetik ateratzeko?

GANBOA.— Baditu ondorio txarrak, baina edertasuna ere badu. Lehen herri batek bertzearekin bazituen horrelako auziak edo haserreak, eta orain herri guztietakoak nahasita daude, eta edertasun hori da

bai informazioa, bai bidaien antolakuntza.

EGUNKARIA.— Heldu den urterako aurkeztu dituzuen helburuen artean zein azpimarratuko zenuke?

GANBOA.— Urtero egiten dugu itsasoz bestaldera bidaia, hau da, Ameriketara. Iaz izan ginen Argentinan, duela bi urte Kuban, eta aitzinean Mexikon eta beste tokietan. Oraingoan Estatu Batuetara joanen gara, maiatzean. Hango euskaldunek hil horren hondarrek igandean egiten dute Los Angeles ondoan bilera, *pic-nic* deitzen dena, eta hara joan behar dugu.

EGUNKARIA.— Askotan aipatzen da gazteen artean ez dagoela mugimendurik, gauzak egiteko gogorik, eta jubilatuena

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

LULUBELEK "EGA" PRESTATZEN DU.

